

ZERGATIK DAUDE ARRATZALEAK MUNDUAN? (3)

Lamia haserretu egin zen. Platera jaso; lapikoa hartu; itsaslabar ondora joan, eta itsasora jaurti zuen. Hara! Beste horrenbeste! Hain zegoen zopa gazi, ezen handik aurrera itsasoko ura gazi dagoen. Baina ez hori bakarrik. Gainera, itsaso horretara ura edatera joan ziren txoriak ere, ur hori edan ondoren, arrain bilakatu ziren.

Harrezkero, badaude, eta bainatzen ari ziren emakume haiek sirena bihurtu ziren eta lamiak berak, lapikotik zopa gazi hura bota ostean, itsasora bota zuen bere burua eta bera ere sirena bihurtu omen zen.

Orduan, artzaina itsasoratu egin zen txalupa txiki batean lamia aurkitzeko asmoz, eta horrexegatik badaude arrantzaleak munduan. Bera izan zen, antza denez, sirena bat topatzeko asmoz itsasoratu zen lehen arrantzalea. Aurkitu zuen ala ez, hori ez dakigu.

- 1) Zertara joan zen lamia itsaslabar ondora?
 - a) Platera eta lapikoa jaurtitzera.
 - b) Zopa jaurtitzera.
 - c) Lasaitzera, haserretuta zegoekako.
- 2) Zer gertatu zen lamiak zopa jaurti ondoren?
 - a) Handik aurrera lamia bakarrik geratu zela.
 - b) Itsaso horretara txoriak ura edatera joan zirela.
 - c) Itsasoko ura gazi dagoela.
- 3) Zer egin zuen lamiak zopa bota ondoren?
 - a) Lapikoa hartu eta etxera joan zen.
 - b) Sirenekin bainatu zen.
 - c) Bere burua itsasora bota zuen.
- 4) Zergatik itsasoratu zen artzainak?
 - a) Txalupa txiki bat zuelako.
 - b) Arrantzalea izan nahi zuelako.
 - c) Lamia aurkitu nahi zuelako.
- 5) Artzainak lamia aurkitu zuen?
 - a) Bai, noski.
 - b) Ez dakigu.
 - c) Ez, ez zuen aurkitu.